



Datorren urteko aurrekontuen helburu nagusia defizit publikoa % 5etik ez igotzea dela esan zuen Solbesek prentsurrekoan.

EFE

1994erako 150.000 langabetu gehiago aurrikusi ditu Espainiako Gobernuak

Aurrekontuen arabera, ekonomiak % 1,4 egingo du gora eta inflazioak % 3,5

Datorren urtean ekonomiak gora egingo duela aurrikusten den arren, langabeziak ez du bilakaera positiborik izango, atzo Espainiako Gobernuak iragarri zuenez. Gobernuaren arabera, 150.000 langabetu gehiago izango dira 1994.urtearen amaieran. Aurten % 0,8 behera egingo duen ekonomia % 1,3 haziko da 1994ean.

% 6koa izango den defizita % 5aren inguruan gorde ahal izateko, ezinbestekoa da, Solbesen esanetan, funtzionarioei soldatarik ez igotzea eta pentsioak aurrikusitako inflazioaren arabera igotzea. «Funtzionarioei sakrifizio hori eskatzea posible da, beste langileena ez bezala, bere lanpostua ez dagoelako arriskuan» argudiatu zuen Ekonomia ministroak. Funtzionarioen soldatak ezezik, Administrazioaren gastu korronteak ere izoztu egingo dira.

Datorren ostegunean Gobernuak Kongresuan aurkeztuko dituen aurrekontuetan gastu soziala % 6 haziko da eta azpiegiturretakoa, berriz, % 10 eta ez

% 15 hasiera batean esan zen moduan. Defizita txikitu ezezik, interes tipoak jaistea ahalbiderratu beharko lukete aurrekontu hauek.

LANGABEZI TASA % 23KOA Jaitsiko ez dena langabezia da. Solbesek atzo onartu zuenez, aurten 630.000 lanpostu desagertu dira, eta ez 200.000 duela urtebete Carlos Soltxagak iragarri zuen moduan. 1994erako aurrikuspenak ez dira batere baikorrak, beste 150.000 langabetu gehiago (biztanle aktiboaren % 23) izango baitira Gobernuaren arabera. 1995erako, ordea, 60.000 langabetu gutxiago aurrikusi dira.

Oraingo zergak igoko ez direla ere iragarri zuen Solbesek eta aurrekontuekin bat Gobernuak onartu dituen neurri osagarriak azaldu zituen. Hauen artean, enpresei zergak jaisten dien batzuk daude. Sindikatuen ustez «gehiegizkoak» eta enpresarien iritziz «eskasak» diren neurri hauek justifikatu zituen Solbesek, «langabezi tasa jaitsi ahal izateko, enpresariei aukera bat eman behar zaielako, zoritxarrez, berriak baitira lanpostuak sor ditzaketan bakarrak».

Langabezi sariak jasotzeko aukera murrizten dituzten neurriak Kontseilu Ekonomiko eta Sozialera igorriko ditu Gobernuak.

PUNTUZ PUNTU

Neurri osagarriak

Sindikatuekin izandako negoziazioek huts egin duten arren, Gobernuak zenbait neurri hartu ditu aurrekontuekin batera. Nolanahi ere, oraindik «negozia daitezke» dio Gobernuak:

- **'ZERGA OPORRAK':** 1994ean sortzen diren enpresa txiki eta ertainek 'zerga oporrak' izango dituzte, hau da, dagokien sozietateen gaineko zergaren % 5 besterik ez dute ordaindu beharko. Horretarako bi baldintza bete beharko dituzte: hiru eta 20 langile artean izatea, eta 1994. urtean 15 milioi pezeta (650.000 libera) inbertitzea.
- **INBERTSIORAKO LAGUNTZAK:** Inbertsio finkoak egiten dituzten enpresei elkarrekin gainera % 30 kenduko zaie, orain baino % 5 gehiago. Atzerrian sukurtsalak irekitzen dituzten enpresek ere zerga txikiagoak (% 20tik % 25era) ordaindu beharko dituzte.
- **ALOKAIRUAK:** Hiru milioi pezeta baino gutxiago irabazten duten soldatadunei beren alokairuen zati handiagoa itzuliko die Estatuak.
- **AZPIEGITURAK:** Azpiegiturretan egindako inbertsioek % 10 egingo dute gora.
- **PENTSIOAK:** Datorren urteko pentsioak % 3,5 igoko dira, hau da, Gobernuak espero duen inflazioa bezainbeste.
- **FUNTZIONARIAK:** Datorren urtean ez zaie soldatarik igoko. Urte horretan ez da lan eskaintza publikorik egingo, eta datozen urteotan eskainiko diren lanpostuen kopurua, erretiratzeko diren funtzionarioen zenbatekoa baino txikiagoa izango da.
- **LANGABEZI SARIA:** Sari handienak jasotzen dituzten langabetuek Errenta Zerga ordaindu beharko dute eta Gizarte Segurantzara kotizatu. Kaleratu dituztelako kalteordainak jasotzen ari direnek ezin izango dute langabezi saririk eskuratu.

La Casa del Café

Juan Frío S.A.
DONOSTIA